



Esp.-kodea: 2014SAPL0004

UDAL PLENOA
Bilkura ezohikoa

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/04/10	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 18:20	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Iñigo Garitano Larrañaga

BILDU EZ DIREN
UDALKIDEAK:

Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.



Esp.-kodea: 2014SAPL0004

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon guztioi. Gaurko Plenoan 2014ko Aberri Egunerako Udalbiltzaren mozio proposamena aztertuko dugu. Lehenengo irakurriko dugu guk proposatzen duguna eta gero PNVk aurkezten du mozio alternatibo bezala beste bat, baina prozedura izango da bozkatu egingo da Udalbiltzak aurkezten duena eta hori onartua gelditzen bada bestea ez da bozkatuko.

1.- UDALBILTZAREN PROPOSAMENA 2014KO ABERRI EGUNERAKO: ÍEUSKAL HERRITARRAK GARA ETA OZENKI ADIERAZI NAHI DUGUÍ.

Idazkariak UDALBILTZAK aurkeztutako mozioa irakurri du:

“Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu”

Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herriar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratortzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gainetik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herriarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herriko 1998. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugari esanguratsua izan zen.



Esp.-kodea: 2014SAPL0004

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo "gure esku dago" bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herriarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, Arrasateko Udalak Aberri Egunerako ez ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herriarrak garela adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herriartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta -batez ere- etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntz eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librean oinarriturik, Herriartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.

4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Erabakitze eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.

5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu.

Euskal Herrian 2014ko apirilaren 10ean".

Idazkariak EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa irakurri du:

"Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herriar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratortzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen ginetik, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure



Esp.-kodea: 2014SAPL0004

udalerrak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko. Horretaz gain, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua, autonomia estatutua berreskuratzeko eskaria egiten zuena. Erkidego Autonomoan 1979ko urriaren 25an herritarrek onetsi zuten, azkenean, Gemikako Estatutua, Euskal Herriari dagozkion eskubide historikoen gaurkotzeari aurrerantzean ere atea zabaltzen dizkion testua. Aipagarria dira ere Ipar Euskal Herrian 1998. urtea geroztik Euskal Departamenduaren alde egindako aldarikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugari esanguratsua izan zen. Zeinek Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulertzen zuen, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartzea askean oinarritu behar zela zioen.

Horretarako behar beharrezkoa da gure Herrirako erabateko bakea eta bizikidetzaren demokratikoa bermatzea. Bake iraunkorra, elkarriketaren, justiziaren, egiaren eta gure Herriaren interes orokorrari bideratuz landua.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo "gure esku dago" bezala, Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, ARRASATEKO herriko udalak Aberri Egunerako ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

1.- Euskal Herritarrek gure adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.

2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan ikurriña (Euskal ikurrak) jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna gure ikurriñaren (ikurren) bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.

3.- Gure herrirako benetako bakea eta bizikidetzaren demokratikoa, elkarriketaren, justiziaren, egiaren eta gure herriaren interes orokorraren bitartez landua izango dena, lortzea helburu duen Eusko Legebiltzarrean abian den Bake eta Bizikidetzaren lantaldeari gure babesa eskaintzen



Esp.-kodea: 2014SAPL0004

diogu, eta, era berean, baita beste gainontzeko Lurraldeetan sor daitezkeen antzeko ekimenei ere.

4.- Egungo gizartean elkarri zor diogun begirunetik, eta guztion ondare diren eskubide demokratikoetatik abiatuz, gure asmoa herritar askez osatutako aberri aske bat lortzea dela aitortuz, justizia soziala eta guztion aurrerabidea bermatuko duena, zer garen ulertzeko oroimen historikoa berreskuratzeke konpromisoa hartzen dugu. Herri bakar bat osatzera garamatzaten ezaugarri eta kultur ondare amankomuna aitortuz eta zainduz, horrekin batera herritar guztien ezaugarri eta eskubideak zainduko dituen gizarte aurreratu bat lantzeko etengabeko asmoa adieraziz.

5.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babesa adierazi nahi diogu. Euskal Herriari dagokion erabakitzeke eskubide demokratikoaren ariketa sinboliko jotzen dugun neurrian bere zilegitasuna aitortzen diogulako.

6.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babesa adierazi nahi diogu. "

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Interbentzionik? Juan Karlos,

JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV): Udalbiltza 2014ko Aberri Egunean EAJren mozioak hurrengo errealitateak dauzka kontuan Udalbiltzak aurkeztutako mozioaren hutsuneak betez.

1. Aipatu beharra dago Erkidego Autonomoen Gernikako estatutua onetsi zutela 1979ko urrian Euskal Herriari dagokion eskubide historikoen gaurkotzeari aurrerantzean eta ateak zabaltzen dizkion testua hain zuzen.
2. Euskadi gure aberriaren eraikuntza bultzatzeko prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulertzea. Euskal herritar guztien erabki eta parte hartze askean oinarritu behar dena.
3. Horretarako behar beharrezkoa da gure herrirako erabateko bakea eta bizikidetzak demokratikoa bermatzea, bake iraunkorra, elkarrizketaren, justiziaren, egiaren eta gure herriaren interes orokorrari bideratuz landua.
4. eusko legebiltzarrean abian den bake eta bizikidetzak lantaldeari gure babesa eskaintzen diogu eta era berean baita beste gainontzeko lurraldeetan sor daitezkeen antzeko ekimenei ere.

Horregatik EAJko udal taldea abstenitu egingo da egin ahalak egin ahal udalbiltzak bere mozioako hutsuneak betetzeko orduan agertu duen jarrera ezezkorra dela eta.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): 3 milio gara estatu propiorik ezean bi estatutan banatutako herri bat espainiarrak era frantziarrak izatera behartuak. Euskal herritarrak gara. Aitortu nahi ez duten herri bat garen arren inbasioak inbasio ez dute lortu sekula gure izaerak kentzea. Euskal



Esp.-kodea: 2014SAPL0004

herritarrak gara. Historikoki sasi guztien gainerik gure nortasuna defendatu dugulako eta jarraitzen dugulako defendatzen ezetzaren aurrean gure nazioa eraikitzen euskal herritartasuna aldarrikatzen. Garenaren aldeko lana, garenaren aldeko aldarria lau haizeetara euskal herri osoan eta Euskal Herritik kanpo dauzen zabaltzera goaz.

3 milioi euskal herritar zor zaigun egiaren alde ukatzen zaigun justiziaren alde bagoaz eskuz esku euskal herritarrok dagozkigun eskubideen jabe egin arte. Arrasate ere izan dadila pauso berri honen parte ez dadila gutako inor geratu ekimen honetatik aparte. Eskerrik asko.

Bozketara pasatuko gara Udalbilzaren mozioa .

Bozketaren emaitza: **Diktamena ONARTUA izan da.**

Bertaratutakoak	14
Aldeko botuak:	10 BILDU (9) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	0
Abstentzioak	4 EAJ-PNV (4)

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Bakarrik esan euskal herritarrak garela adierazteko ordua dela, animatu guztioi euskal ikurra jartzera sentitzen duguna publikoki adierazteko eta Gure Esku Dago herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruña eta Durangoren arteko giza katean parte hartzen. Eskerrik asko etortzeagatik eta hurrengo arte.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:20:00tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko apirilaren 10ean

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

Inazio Azkarragaurizar Larrea